



Emakumeen Jabekuntza Eskola sare proiektua da, bertan Ermua, Getxo, Basauri eta Ondarroako Udalek parte hartzen dute. Eskolaren helburua emakumeek politikan eta jendartean parte har dezaten sustatzea da, politika publikoetan eragina izateko aukera izan dezaten, historian zehar hauetatik kanpo baztertuta egon baitira.

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolen sarea 2004ean eratu zen, Basauriko eta Ermuko udalerriekin batera. Udalerri horiei Ondarroakoa gehitu zitzaizen urte bete geroago.

Eskolaren abiapuntua emakumeek oraindik jasaten dugun **desberdintasun- eta diskriminazio-egoerei dagokienez kontzientzia sortzeko** eta horien **parte-hartze soziopolitiko aktiboa bultzatzeko** prestakuntza, topaketa eta hausnarketa guneak sortzeko beharra da.

Eskolak emakumeen jabekuntza sustatu nahi du, jendarte-eraldaketarako kontzientziazio- eta ikaskuntza–prozesurako eta horretarako tresnak eskuratzeko prozesua. Banakako nahiz taldekako jabekuntza bilatzen dugu, ez baita nahiko eremu subjektibo eta pertsonalean aldaketak eragitearekin, baizik eta, talde-mailan ere aldaketa gertatzea beharrezkoa da sareak sortuz eta partaidetza sozialaren bitartez.

Horretarako guztirako, Eskola hiru ardatzetan garatzen da, hots: prestakuntza, beste kultura batzuetako emakumeekin elkartrukea eta elkartasuna eta sistematizazioa, hori guztia ikuspegi feminista batetik garatuz.

Proiektuak hiru jardunbide jasotzen ditu:

- Emakumeek jendartean eta politikan parte har dezatela sustatzea, trebakuntza programa bat eginez, hura errazten duten tresnak eskaintzen dituen, eta parte hartzeko bideak sortuz eta sendotuz (Berdintasun Kontseiluak).
- Beste kulturetako emakumeekin lankidetzan aritzea. Esku hartzeko ildo honen barruan, ekintzak eta proiektuak garatzen ari gara, Lankidetzaren eta Immigrazio arloekin elkarlanean.
- Prozesuaren azterketa eta sistematizazioa, emakumeek gizartean eta politikan parte hartze handiagoa izateko xedearekin abiarazten diren baliabideak baliozkotzeko (halakorik dagoenean).

Formakuntza lerro ezberdinetan sailkatuta dago:

- Elkartasuna eta elkartrukea munduko emakumeekin Emakumeen Nortasuna eta subjektibotasuna ildoak
- Feminismoa
- Osasuna
- Partehartze politikoa eta soziala
- Kultura birdefinitzen
- Komunikazioa
- Autonomía suspertuz